

2008ko laugarren hiruhilekoan ezkontza zibilen ehunekoa igi egin zen, guztien % 65,6 izatera iritsiz

Alabaina, aurreko urteko aldi beraren aldean ezkontza guztien kopurua % 4,3 gutxitu zen

EUSTATen datuen arabera, 2008ko laugarren hiruhilekoan aurreko urteko aldi berean baino ezkontza zibil gehiago egin zen; hain zuzen ere, 2007. urtean ezkontza zibilak % 61,5 izan ziren eta 2008. urtean % 65,6. Bestalde, ohikoa den bezala, urteko azken hilabeteetan udakoetan baino ezkontza zibil gehiago egin da (% 45,8).

Urrian, azaroan eta abenduan guztira 1.753 ezkontza egin ziren Euskal AEn, 2007ko hiruhileko beraren aldean % 4,3 gutxiago. Lurralde historikoen arabera, bizkaitarrek 887 ezkontza ospatu zituzten, gipuzkoarrek 579 eta arabarrek 236. Ezkondu ondoren gure erkidegotik kanpo bizitzera joan zirenak 51 izan ziren.

Euskal AEn bizi ziren 1.685 gizonezko eta 1.706 emakumezko ezkondu ziren. 1.487 senar (% 88,2) lehenengo aldiz ezkondu ziren eta, bestalde, 11 gizonezko alargun eta 187 gizonezko dibortziatu berriz ezkondu ziren. Lehenengo aldiz ezkonduak aintzat hartuta, emakumeen kopurua gizonena baino pixka bat handiagoa izan zen, ezkontzea erabaki zuten emakumezko ezkongabeak 1.527 izan ziren (% 89,5), alargunak 10 eta dibortziatuak 169.


Senar-emazteen adina kontuan hartuta, 2008ko laugarren hiruhilekoan senarren % 81,7ak eta emazteen % 71k 30 urte baino gehiago zituen. Kopuru horiek aurreko urteko aldi berean izan zirenak baino handiagoak dira; hain zuzen, aurreko urtean % 79,6 eta % 66,2 izan zirelako, hurrenez hurren, aipatutako kopuruak.

2008. urtea osorik hartuta, ezkontzeko adina atzeratzeko joerak bere horretan jarraitzen du: ezkondu ziren gizonen % 76,5 eta emakumeen % 63,7 30 urte edo gehiagorekin ezkondu ziren. Ehuneko horiek 2007. urtekoak (% 75,4 eta % 59,9, hurrenez hurren) baino handiagoak dira.

2008ko behin-behineko datuen arabera, aurreko urtearekin alderatuta % 1,2 jaitsi zen Euskal AEko egoiliarren ezkontza kopurua. Ezkontza zibilen proportzioak, aldiz, ehuneko 4 puntutan gainditu zuen 2007koa; 2008an ezkontza guztien % 56,3 izan ziren zibilak.

	2008ko 4. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2008ko 3. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2007ko 4. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	1.753	100,0	2.993	100,0	1.832	100,0
Kanonikoak	603	34,4	1.621	54,2	706	38,5
Zibilak	1.150	65,6	1.372	45,8	1.126	61,5
SENARGAIK	1.685	100,0	2.900	100,0	1.781	100,0
Ezkongabeak	1.487	88,2	2.706	93,3	1.594	89,5
Alargunak	11	0,7	8	0,3	10	0,6
Dibortziatuak	187	11,1	186	6,4	177	9,9
EMAZTEGAIK	1.706	100,0	2.929	100,0	1.806	100,0
Ezkongabeak	1.527	89,5	2.751	93,9	1.620	89,7
Alargunak	10	0,6	4	0,1	11	0,6
Dibortziatuak	169	9,9	174	5,9	175	9,7

1.grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimendua



Oinarria 100 = b.b.
Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es